

MUTURREKO POBREZIA

Pandemiaren eraginez, desorekak handitu egin dira Latinoamerikan

Covid-19aren pandemiak mundu osoan eragin zabala izan du, baina sektore guztietan ez du berdin jo. Izan ere, pertsona zaugarriak zaugarriago dira orain.

Horren adibide argia da Latinoamerikako kasua. Bertan, biztanleen muturreko pobrezia-aren tasak gora egin du azken bi urteetan, 86 milioi pertsonara iritsi arte, duela 27 urteko datuak berdinduz, Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoak (Cepal) jakinarazi duenez.

Nazio Batuen Erakundearen mende dagoen batzorde horren arabera, muturreko pobrezia-aren tasa %13,1etik %13,8ra igo zen 2020an (bost milioi pertsona gehiago), pobrezia indizea %33tik %32,1era jaitsi zen bitartean.

«2021ean susperraldi ekonomikoa izan den arren, pobrezia-aren eta muturreko pobrezia-aren mailak 2019an

 **JENDARTEA/** Nagore Belastegi Martin

Berez desberdintasun handiak daude Latinoamerikan, baina covid-19aren pandemiak areagotu egin ditu, lehen pobreak zirenak muturreko pobrezian murgilduz. Egoera guztiz zaugarrian gelditzen dira horrela, etorkizunean ere horri buelta emateko aukerarik gabe. Pobrezian direnek aukera gutxi dituzte euren egoera hobetzeko.

erregistratutakoen gainetik mantendu dira, eta horrek krisi sozialaren jarraipena islatzen du», adierazi du Cepalek, «Latinoamerikako panorama soziala» txostenean.

Latinoamerika eta Karibe izan zen, osasunari eta ekonomiari dagokienez, covid-19ak gehien kaltetutako lurraldeetako bat: 2020an barne produktu gordinaren (BPG) %6,8ko uzkurdura eragin zuen, 120 urteko atzerapausorik handiena. Izan ere, 2020an eremu horretan munduko biz-

Venezuelako hegoaldean dagoen Bolívar estatuko biztanleak muturreko pobrezian bizi dira. Urtero, Maniapure Fundazioak mediku adituekin kontsultak prestatzen ditu. Irudian, kontsultan sartzeko ilara. Federico PARRA | AFP

tanleriaren %8,4 izanik, abenduan munduko kutsatzeen %18,6 hartzen zuen. Urte horretan covidaren ondorioz hil zirenen %27,8 Latinoamerikan edo Kariben bizi ziren.

Pandemiak gogor jo zuen lurraldean, gizarteko desberdintasuna errotua dagoelako arrazoi desberdinak direla-eta: egoera sozioekonomikoa, generoa, adina, etnia edo arraza, gaitasun urritasuna edo estatus migratorioa. Horiek guztiek bazterkeria eta diskriminazioa areagotzen dute eta

herritar horiek zaugarri gelditzen dira gaixotasunaren aurrean, askotan desberdintasunak eragiten duelako osasun zerbitzuetan artatuak izateko aukera galtzea. Era berean, pobreak diren familietan egoki elikatzeko aukerak murriztu egiten dira, eta horrek ere osasuna kaltetzen du; finean, sorgin-gurpil bat da.

KALTETUENAK, HAUR ETA GAZTEAK

Pobrezia eta muturreko pobrezia tasak handiagoak dira emakumeen artean, indigena eta beltzen artean, haur eta nerabeen artean, ikasketa maila baxuko pertsonen artean eta guraso bakarreko familietan.

Era berean, landa eremuetan nabarmenagoa da pobrezia, soldata txikiagoak jasotzen dituztelako langileek orokorrean. 2019an landa eremuetako pobrezia tasa %45,7koa zen, hiriguneetan baino 19 puntu altuagoa.

Arraza eta etniari dagokionez, indigenen %46,7 pobre-



zian ziren (%17,3 muturreko pobrezia egoeran), pertsona ez-indigena eta ez-beltzen bi-koitza (eta hirukoitza muturreko pobrezia-aren kasuan).

Krisi garaiek haur eta nerabeen garapenari eragiten diete. Euren eskubideak beteko direla zein giza gaitasunak garatuko dituztela ezin da bermatu. Hortaz, nahiz eta covid-19ak ez dien adin txiki-koei zuzenean hainbeste eragiten, haiek dira epe luzera pandemiaren ondorioak gehien sufrituko dituztenak.

2020an 32 herrialdek ikasketak zentro guztiak itxi zituzten birusaren hedapena gelditzeko. Hala, 165 milioi ikasle etxean gelditu ziren. Herrialde gehienek ikasketekin jarraitzeko moduak pentsatu zituzten –Internet, telebista edo irrati bidez–, eta hilabete batzuen ostean eskoletara itzuli ziren, pixkanaka.

Horrek guztiak irakaskuntzaren moldaketa azkarra ekarri zuen eta bitarteko digitalen bitartez eskolekin jarraitzea posible izan zenez, belaunaldi oso baten «katas-trofea» ekidin zen. Baina, era berean, desberdintasunak areagotu egin ziren.

Pandemiaren aurretik desabantaila egoeran zeuden ikasle-oen egoerak okerrera egin zuen. Alde batetik, arraila digitala handitu egin zen, familia batzuek ez dutelako Internetarako sarbiderik. Bestetik, genero rolen ondorioz, neskatilek mutikoei baino lan karga handiagoa zuten etxean, eta beraz, ikasketak alde batera uzteko arrisku handiagoa ere bai.

Cepalek uste du bi faktore horiek eskola porrota areagotuko duela, zentroetara joan behar ez izateak eskolarekiko



atxikimendua murriztuko duelako. Gainera, familia po- breen egoera latzaren ondorioz, goi mailako ikasketetara iristen diren ikasleen tasa nabarmenki murriztea aurrei- kusten da.

LAN MUNDUAREN GALERA

Pandemiak lanpostuak galtzea eta soldaten jaitsiera ere ekarri zuen kasu askotan; batez ere behe mailako jendea-ri eragin die horrek.

Costa Ricako Alajuela probintziako haurrak jolasten. Herrialde horretan pobrezia tasa oso altua da.
Luis ACOSTA | AFP

Pandemiaren eragina handiagoa izango litzateke sektore ahulentzako gizarte laguntza-rik gabe –45.200 milioi dola- rretik gorakoak iaz–. Horiek, txertaketa prozesuarekin bate- ra, «ekonomiaren susperraldi motela» ahalbidetu zuten, eta BPGaren igoera %6,2koa izan zen 2021ean.

Hala ere, emakumeen desokupazio tasak %11,8koa izaten jarraitu zuen iaz eta %8,1koa gizonenak. Horrek esan nahi

du «oraindik ez direla krisia- ren aurreko mailetara itzuli».

Cepalek azaldu duenez, muturreko pobrezia-aren hazkun- dea «larrialdiko diru sarreraren transferentziak murriztearen ondorioa izan zen, eta transfe- rentzia horiek ez dira konpen- tsatzen enpleguaren diru sa- rreren igoerarekin».

Izan ere, egindako ikerketa- rekin lortutako datuen arabe- ra, laguntza horiek gabe po- brezia tasa %37,2koa izango litzateke, eta muturreko po- brezia-arena %15,8koa.

Bi indizeetako gorakadarik handienak Argentinan, Kolon- bian eta Perun izan ziren, non portzentajezko 7 puntu edo gehiago lortu zituzten.

Txilen, Costa Rican, Ekuado- rren eta Paraguain 3-5 puntu hazi zen, eta Bolivian, Mexi- kon eta Dominikar Errepubli- kan, berriz, 2 ehuneko puntu baino gutxiago.

El Salvadorren, pobrezia tasa ia ez zen aldatu –muturreko

SUSPERRALDI ARRAKASTATSURAKO GAKOAK

Adituek uste dute krisialdia pixkanaka gaintitzen ari garela eta, epe laburrera, susperraldi azkarra espero da Latinoamerikan eta Kariben, baina Cepalek uste du susperraldi hori arrakastatsua izateko eta iraun ahal izateko, beharrezkoa dela ekonomia martxan jartzeko prozesuei adi begiratzea, larrialdiaren aurrean gizartea babesteko sortu diren programak indartuz, eta ez alde batera utziz.

Programa horiek gai izan beharko lirateke familien oinarritzko gastuak finantzatzeko, zorren ordainketak atzeratzeko, zaurgarriak diren familiek galera handiak izan ez dezaten neurriak hartzeko eta, finean, gizarteak ongizatean atzerapausorik ez emateko. Hala, Cepalek beharrezkoa ikusten du epe ertain eta luzera babes neurri unibertsalak eta osatuak garatzea, azken bi urte hauetan ikasitakoa kontuan hartu eta erabiliz.

pobrezia bai, ordea, bi ehuneko puntutan-, eta bi indizeetan beherakada izan zuen herrialde bakarra Brasil izan zen, %1,8 eta %0,7 jaitsi baitziren, hurrenez hurren.

Kalkuluen arabera, 2019 eta 2020 artean gizarteko behe mailakoen kopuruak gora egin zuen; eta maila ertainekoen kopuruak, behera. Hala, 2019an maila ertainean kokatzen ziren 59 milioi biztanletatik, 28 milioik ekonomikoki behera egin zuten 2020an; 3 milioi pobrezia egoeran gelditu ziren eta beste 25 milioik maila ertainean bizitzen jarraitu zuten, ekonomikoki estuago egon arren. Nahiz eta hasiera batean laguntza publikoak pobrezian dauden pertsonen sostengua emateko diren, Cepalek ikusi du horiekin esker milioika pertsona pobrezian ez erortzea lortu dela.

METROPOLIEN ARRISKUA

Esan bezala, susperraldirako funtsezko faktore bat txertaketa da, 2021ean Latinoamerikako biztanleriaren %59,4k jasotzen baitzituen (389,4 milioi pertsona) bi dosi, gaixotasunaren larritasunaren aurrean ba-bestuz.

Pandemiak 55,7 milioi kasu eta 1,5 milioi heriotza utzi ditu bi urtean eskualdean, eta omikron aldaera gora egiten ari da hainbat herrialdetan, hala nola Mexikon, Argentinan, Perun eta Txilen.

Heriotza tasa altuarekin badiuzkizuten biztanleriaren banaketak. Izan ere, Latinoamerikan eta Kariben herrialdeetan %81 hiriguneetan bizi da; %35 milioi bat pertsona baino gehiagoko hiri batean bizi da. 10 milioi biztanle baino gehiagoko bost megalopoli daude: Buenos Aires, Mexiko Hiria, Lima, Rio de Janeiro eta Sao Pau-



Emakume bat platerak garbitzen, Costa Ricako Alajuela probintzian, El Erizo auzoko etxean. Ur hornidura etxeraino bertaraino iristen zaio, bertako askori ez bezala. Luis ACOSTA | AFP

lo. Dentsitate demografiko handiak birusaren kutsatzea biderkatu zuen. Izan ere, 2020an covid-19aren kasuen %90 hiri eta herri handietan antzeman ziren.

Hiri eta metropoliek badi-tuzte beste arrisku batzuk: pilaketak; uraren, argindarraren edo Interneten eskuragarritasuna, prekaritatea edo garraio publikoaren saturazioa. Horiek guztiek pobrezian bizi diren pertsonen eragiten diete

Pobrezia ohikoagoa da emakumeen artean, indigena eta beltzen artean, haur eta nerabeen artean, ikasketa maila baxuko pertsonen artean eta guraso bakarreko familietan

Batzuk birusarekin kutsatzearen beldur dira eta ez doaz medikuarenera. Ondorioz, ugaritu egin dira beste gaixotasun batzuk jasan arren inongo kontrolik ez duten pertsonak

batez ere, eta horregatik egoe-ra sozioekonomiko baxuko pertsonen covid-19aren krisia larriago bizi izan dute.

Pilaketa da faktore guztietan garrantzi handien duena. 2019an hiriguneetako etxebizitzaren %30ean jendea pilatuta bizi zen (bi lagun baino gehiago logela bakoitzeko), eta zifra hau %50ekoa zen familia pobreen artean. Horiek ezinezkoa dute berrogeialdia egitea.

Ur garbia lortzeko zailtasunak ere pandemiaren zabal-tzea eragin du, eskuak ondo eta maiz garbitzeko aukerarik ez dagoelako. Bost herrialde-tan (Txile, Kolonia, Guatemala, Mexiko eta Peru) 8 milioi indigenek ez dute urik etxean. era berean, indigenen artean pilaketa ohikoagoa da.

OSASUN OROKORRARI BEGIRA

Pandemiak osasunean izango duen eragina ez da covid-19ra

mugatzen (mundu osoan aplikatu daiteke hau, ez bakarrik Latinoamerika eta Kariben). Krisialdiak bestelako gaixotasunak alde batera uztea eragin du. Horrekin batera, pertsona batzuk birusarekin kutsatzearen beldur dira eta ez doaz medikuarenera. Ondorioz, diabetesa, hipertentsioa eta gisako beste gaixotasun batzuk eduki arren inolako kontrolik gabe dauden pertsonak biderkatu egin dira.

Bestalde, osasun mentalean, haur eta amen osasunean eta ugalketako eta sexu osasunean ere galerak nabaritu dira. Horiek epe luzera eragina izan dezakete. Adibidez, ugalketa osasunera sarbiderik ez izateak antisorgailuen bazterketa ekar dezake, eta ondorioz, nahi gabeko haurdunaldiak ere bai. Bestalde, krisi ekonomikoak ama izateko erabakia atzeratzea ekar dezake.